

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Alkatearen eginkizunak eskuordetzea

Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Arautegiak 44. eta 47. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, aditzera ematen da alkateak behean adierazten den datan emandako ebazpena, zeinaren bidez alkatearen eginkizun guztiak eskuordetzen zaizkion udal honetako lehenengo alkateorde Inmaculada Albizu Fuentes andreari, alkatea kanpoan izango delako, 2020ko otsailaren 15etik 18ra, egun biak barne.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2020ko otsailaren 6a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ